



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko otsailaren 18a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (14. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, ustelkeria desagerrarazte aldera Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (15. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Altsasuko “Josefina Arregui” zentro psikiatrikoaren arazo ekonomikoak konpon ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (16. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Kultur Bonoaren programa. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (16. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ondare arkeologikoaren eta indusketen arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak aurkez ditzan. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (17. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun etxeetako administrazio-alor guztiei buruzko azterlan bat egin dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (18. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso dezan 7/2009 Foru Legean xedatutakoa. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak bazter utzia (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2009ko aurrekontuetako kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, Ultzamako, Anueko, Atezko eta Odietako ur-hornidurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Euskal Y-aren Sakanako bide-trazadura baliatzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartzelonarako bai Madrilerako tren bat egunero gera dadin. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2009ko abenduaren 4ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeko 10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“10. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua

Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua Administrazioaren kide anitzeko organo aholku-emaile eta parte-hartzailea da, Nafarroako Foru Komunitatearen nazioarteko garapenerako lankidetzaren arloko politika zehazterakoan.”

Zioak: Argiago adieraztea kontseiluaren xedea, azpimarratuta organo aholku-emaile eta parte-hartzailea dela lankidetzaren arloko politikak zehazterakoan.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5/2001 Foru Legeko 10. artikulua aldatzeko zuzenketa, ez baita proiektuan jasotzen. Honela geldituko da:

“10. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua

Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua Administrazioaren kide anitzeko organo aholku-emaile eta parte-hartzailea da, Nafarroako Foru Komunitatearen nazioarteko garapenerako lankidetzaren arloko politika zehazterakoan.”

Zioak: Gure ustez, eragingarritasunaren mesedetan, Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua ahal den gehiena hurbildu behar zaio Estatuko Garapenaren Kontseiluari

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA

NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN

ELKARTEAK AURKEZTUA

Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeko 10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“10. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua.

Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua Administrazioaren kide anitzeko organo aholku-emaile eta parte-hartzailea da, Nafarroako Foru Komunitatearen nazioarteko garapenaren arloko politika zehazterakoan.”

Zioak: Proposatutako testua baino argiagoa da, eta, aholku-emaile bada ere, garapenaren arloko

politikan parte hartzen duenez gero, organo aktiboagoa da.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra –bi– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen zen testua:

“Bi. Honela idatzita agertuko da 11. artikulua: Kontseiluan ordezkariak izanen dituzten entitateak edo organoak. Kontseiluak departamentu eskuduneko kontseilaria izanen du buru eta honakoek izanen dute eskubidea bertan ordezkari izateko: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako Parlamentuko taldeak (Foru Parlamentuko kide ez diren ordezkarien bidez betiere), Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroan dauden unibertsitateak, Foru Komunitatean ordezkari izateko handiena duten sindikatuak eta enpresa elkarteak eta Nafarroako garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak. Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakunde kasuan, haien ordezkari izateko Nafarroako GGKE-en Koordinakundearen barruan hautatuko da.

Hau da proposatzen dugun testua:

“Bi. Honela idatzita agertuko da 11. artikulua:

“11. artikulua. Kontseiluan ordezkariak izanen dituzten entitateak edo organoak.

1. Kontseiluak departamentu eskuduneko kontseilaria izanen du buru eta honakoek izanen dute eskubidea bertan ordezkari izateko: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, zeinak ez baitu inolaz ere izanen kideen gehiengoa, Nafarroako Parlamentuko taldeak (Foru Parlamentuko kide diren edo ez diren ordezkarien bidez), Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroan dauden unibertsitateak, Foru Komunitatean ordezkari izateko handiena duten sindikatuak eta enpresa elkarteak eta Nafarroako garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak. Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakunde kasuan, haien ordezkari izateko Nafarroako GGKE-en Koordinakundearen barruan hautatuko da.

Kontseiluak zilegi izanen du garapenerako lankidetzaren arloko adituei gonbit egitea aholku eman diezaioten.”

2. Kontseiluak lehendakariorde bat ere izanen du, kontseiluak berak hautatuko duena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari ez diren artetik.

3. Kontseiluaren barruan Batzorde Iraunkorra eratuko da. Hala erabakiz gero, beste batzorde edo lan talde batzuk ere eratu ahalko dira.

4. Kontseiluaren osaketa, antolamendua eta jardunbidea erregelamendu bidez ezarriko dira.

5. Batzorde Iraunkorraren eta, kasua bada, batzordeen eta lan taldeen osaketa, antolamendua eta jardunbidea Kontseiluaren erabaki bidez ezarriko dira, lehendakariaren proposamenari jarraituz”».

Zioak: Helburua gaztelaniazko testuan departamentu eskudunaren titulartasuna egokitzea da, kontseilaria gizonetara eta emakumetara izan; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari gehiengoa ez edukitzea; parlamentutaldeen ordezkariak ez izatea nahitaez foru parlamentari, eta, azkenik, lehendakariordea izatea eta batzorde iraunkorraren, batzorde berezien edo lan taldeen bidez jarduteko aukera ematea.

5. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko bigarren idatz-zatia, 5/2001 Foru Legeko 11. artikulua aldatzen duena, aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“11. artikulua. Kontseiluan ordezkariak izanen dituzten entitateak edo organoak.

1. Kontseiluak departamentu eskuduneko kontseilaria izanen du buru eta honakoek izanen dute eskubidea bertan ordezkari izateko: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako Parlamentuko taldeak, Nafarroako Parlamentuan garapeneraren aldeko lankidetzaren arloko ardura duen batzordeko lehendakaria, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroan dauden unibertsitateak, Foru Komunitatean ordezkari izateko handiena duten sindikatuak eta enpresa elkarteak eta Nafarroako garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak. Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakunde kasuan, haien ordezkari izateko Nafarroako GGKE-en Koordinakundearen barruan hautatuko da.

Kontseiluak zilegi izanen du garapenerako lankidetzaren arloko pertsona adituei gonbit egitea aholku eman diezaioten.”

Kideak izendatzerakoan, gizonen eta emakumeen arteko ordezkari izateko orekatua izatea sustatuko da.

2. Kontseiluak lehendakari bat eta lehendakariorde bat izanen ditu. Departamentu eskuduneko

kontseilaria izanen da lehendakaria, eta gizarte eragileen ordezkarien artetik kontseiluak izendatzen duen pertsona bat, berriz, lehendakariordea.

3. Kontseiluaren barruan batzorde iraunkor bat sortuko da, eta batzorde edo lan-talde gehiago sortu ahalko dira. Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseiluak ezarriko ditu, erregelamendu bidez, Kontseiluaren eta batzordeen osaera, antolamendua eta jarduteko araubidea.”

Zioak: Xedea da Kontseiluaren jardunbidea eta ordezkartza hobetzea, eta gizarte-erakundeen eta foro tematikoen presentzia indartzea, eztabaida hobetze aldera.

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra –zazpi– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen zen testua:

“Zazpi. Honela idatzita agertuko da 16. artikulua: “16. artikulua. Garapenerako lankidetzan aritzeko dirulaguntzak. 1. Garapenerako lankidetzan aritzeko dirulaguntza guztiak azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoaren arabera izanen dira, eta espezialitate hauetakoak:

a) Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan kontrakorik agertzen ez bada, aurrerakin gisa ordainduko dira.

b) Dirulaguntzen aurrerakinak 150.000 eurokoak edo handiagoak badira urtean, bermeak ezarriko dira nahitaez. Kopuru txikiagoak izanez gero, ez da beharrezkoa izanen bermeak ezartzea.

c) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko epeak zenbatzerakoan, dirulaguntza ematen duen ebazpenaren data hartuko da hasierako datatzat.

Ekintza horiek gauzatzeko epeak hasieran emandako denbora halako bira bitarte luzatzen ahalko dira, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan.

d) Beste administrazio publiko batzuekin batera kofinantzatuz gero, administrazio horiek onartutako gastuen justifikazioak baliozkotu egingen dira, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan.

e) Tokiko bazkidea nazioarteko erakunde bat bada, Espainiak izenpetutako nazioarteko akordio edo itunetan lege ezarritako moduan eman beharko ditu kontuak. 2. Foru Komunitateko Administrazioak behar diren kontrol eta ebaluazio tresnak ezarriko ditu funts publikoak erabiltzean lege-

kotasuna eta eraginkortasuna berma daitezen, Comptos Ganberak lege bere dituen eskumenak ezertan galarazi gabe”

Hau da proposatzen dugun testua:

“Zazpi. Honela idatzita agertuko da 16. artikulua:

“16. artikulua. Garapenerako lankidetzan aritzeko dirulaguntzak.

1. Garapenerako lankidetzan aritzeko dirulaguntza guztiak azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoaren arabera izanen dira, eta espezialitate hauetakoak:

a) Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan kontrakorik agertzen ez bada, aurrerakin gisa ordainduko dira.

b) Baldin eta dirulaguntzen aurrerakinak 1.000.000 eurokoak edo handiagoak badira urtean, beharrezkoa den kalifikazioa eduki beharko da edo, bestela, bermeak ezartzea eskatu ahalko da. Kopuru txikiagoak izanez gero, ez da beharrezkoa izanen bermeak ezartzea.

c) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko epeak zenbatzerakoan, dirulaguntza ematen duen ebazpenaren data hartuko da hasierako datatzat.

Ekintza horiek gauzatzeko epeak hasieran emandako denbora halako bira bitarte luzatzen ahalko dira, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan. d) Beste administrazio publiko batzuekin batera kofinantzatuz gero, administrazio horiek onartutako gastuen justifikazioak baliozkotu egingen dira, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan. .

e) Tokiko bazkidea nazioarteko erakunde bat bada, Espainiak izenpetutako nazioarteko akordio edo itunetan lege ezarritako moduan eman beharko ditu kontuak. f) Deialdietako oinarrietan ezarri ahalko da frogagiri gisa onartzea kontabilitateko auditoretzak, baldin eta kontuen zinpeko aztertzaileek eginak badira. Kontu-auditoreek atzerrian aztertzen badituzte justifikazio-kontuak, azterketa egiten den herrialdean jarduten duten auditoreek egin ahalko dute azterketa hori, baldin eta herrialde horretan lanbidean jarduteko habilitazio-araubidea badago.

Herrialde horretan lanbidean jarduteko habilitazio-araubiderik ez badago, han kokatutako auditore batek egin ahalko du artikulu honetan aurreikusitako azterketa, baldin eta Foru Administrazioako organo emaileak berresten badu, hartzailaren proposamenari jarraikiz, haren izendapena, behar bezalako kalitatea ziurtatzen duten irizpide teknikoekin bat.

2. Edozer arrazoi dela eta, Nafarroako aurrekontu orokorretan ezarritako lankidetzaren funtsaren gerakin bat baldin badago esleitu gabe, dirulaguntzetarako presako deialdia eginen da berriz ere, Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko Foru Legean ezarritakoan oinarrituz.

3. Epeei dagozkien arrazoiengatik nahiz beste inguruabar batzuegatik beste deialdi hori egitea ezinezkoa baldin bada, gerakineko kopuru esleitu gabea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak kudeatuko du zuzenean.

4. Deialdietako oinarrietan zehaztu beharko dira gehieneko epeak, emandako dirulaguntzen balorazioa, ebazpena, azken txostena eta ordainketa egiteko. Prozesu eta epe horiek egokiak eta duden lankidetzaren tresnei eta errealitateei –mikroekintzei, proiektuei, programei eta abar– egokituak izan beharko dute

5. Foru Komunitateko Administrazioak behar diren kontrol eta ebaluazio tresnak ezarriko ditu funts publikoak erabiltzean legezketasuna eta eraginkortasuna berma daitezen, Comptos Ganberak legez bere dituen eskumenak ezertan galarazi gabe.”

Zioak: Helburua da Europako araudian ezarritako mugetara eta baldintzetara egokitzea bermeen exigentzia, baldin eta halakorik badago. Orobat bilatzen da tresna zaluago eta zuzenago bat ezartzea baliabideak berresleitzeko, aurrekontuko gerakinak dauden kasuetan. Azkenik, gastuak justifikatzeko eta proiektuak egiteko beste tresna batzuk ahalbidetzea bilatzen dugu, lankidetzaren errealitateetara egokituz eskakizun horiek.

7. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko zazpigarren idatz-zatia, 5/2001 Foru Legeko 16. artikulua aldatzen duena, aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“16. artikulua. Garapenerako lankidetzaren aritzeko dirulaguntzak.

1. Garapenerako lankidetzaren aritzeko dirulaguntza guztiak azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoaren arabera izanen dira, eta espezialitate hauetakoak:

a) Dirulaguntzak, oro har, aurrez ordainduko dira, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak baimen eman ondoren.

b) Dirulaguntza horiek aurrez ordaintzeko ez da bermerik eskatuko, salbu eta, salbuespena izateagatik edo arrisku berezia ekartzeagatik bermea eskatzea erabakitzen denetan; bermea eskatzea arautu eta justifikatuko da kasuan kasuko oinarri arautzaileetan.

c) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko epeak zenbatzerakoan, dirulaguntza ematen duen ebazpenaren data hartuko da hasierako datatzat; ekintza horiek gauzatzeko epeak hasieran emandako denbora halako bira bitarte luzatzen ahalko dira, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan.

d) Beste administrazio publiko batzuekin batera kofinantzatuz gero, administrazio horiek onartutako gastuen justifikazioak baliozkotu eginen dira, oinarri arautzaileetan ezartzen diren baldintzetan.

e) Tokiko bazkidea nazioarteko erakunde bat bada, Espainiak izenpetutako nazioarteko akordio edo itunetan legez ezarritako moduan eman beharko ditu kontuak.

f) Garapenaren aldeko lankidetzaren ekintzen kalitatea areagotze aldera, Administrazioak oinarri arautzaileetan zehaztu beharko ditu emandako dirulaguntzaren balorazioa, ebazpena, azken txostena eta ordainketa egiteko epeak, dauden tresnen bat.

g) Emandako dirulaguntza kontabilitateko auditoretza bide justifikatzen baldin bada, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat, oinarri arautzaileetan zehaztutako auditoretzako erakundeek bete beharreko ezaugarriak eta baldintzak.”

2. Foru Komunitateko Administrazioak behar diren kontrol eta ebaluazio tresnak ezarriko ditu funts publikoak erabiltzean legezketasuna eta eraginkortasuna berma daitezen, Comptos Ganberak legez bere dituen eskumenak ezertan galarazi gabe.”

Zioak: GKEak berak dioenez, Nafarroa da bermeak aurkeztu beharra ezartzen duen Espainiako autonomia erkidego bakarra, Kanpo Arazoetako Ministerioak ere ez baitu eskatzen berme horiek ezarri beharra. Hori da zuzenketa honen xedea; izan ere, gure ustez, bermea eta efizientzia uztartu beharra dago.

8. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarra –zazpi d)– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen zen testua:

“Zazpi. Honela idatzita agertuko da 16. artikulua:

“16. artikulua. Garapenerako lankidetzan aritzeko dirulaguntzak.

d) Beste administrazio publiko batzuekin batera kofinantzatuz gero, administrazio horiek onartutako gastuen justifikazioak baliozkotu eginen dira, oinarri arautzaileetan ezartzen diren baldintzetan.

Hau da proposatzen dugun testua:

“Zazpi. Honela idatzita agertuko da 16. artikulua: “16. artikulua. Garapenerako lankidetzan aritzeko dirulaguntzak.

d) Baldin eta, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaz gain, funts edo baliabide berekiak nahiz pribatuak edo bestelako dirulaguntza publikoak erabiltzen badira jarduerak kofinantzatzeko, frogatu egin beharko dira funts horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueretara aplikatu izana, entitateak berak emandako ziurtagiriaren bidez funts pribatuen kasuan edo zenbatekoa eta proiektua zehazten dituen aldeko ebazpenaren kopiaren bidez dirulaguntza publikoen kasuan.

Zioak: Asmoa da beste entitate edo erakunde batzuek kofinantzatutako jardueretara edo eskuhartzeetara egokitzea justifikazioaren eskakizuna.

9. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeko 16. artikulua aldatzen duen artikulu bakarreko zazpi-garren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita 16. artikulua b) letra:

“Dirulaguntza horiek aurrez ordaintzeko ez da bermerik eskatuko, salbu eta, salbuespena izateagatik edo arrisku berezia ekartzeagatik bermea eskatzea erabakitzen denetan; bermea eskatzea arautu eta justifikatuko da kasuan kasuko oinarri arautzaileetan.”

Zioak: Nafarroa da bermea aurkeztu beharra ezartzen duen autonomia erkidego bakarra. Europar Batasunak ere salbuesten du bermea aurkeztetik milioi bat eurotik beherako zenbatekoetan, GKE-ek haiekin aspaldi egindako bilera adierazi zigutenez.

10. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeko 16. artikulua aldatzen duen artikulu bakarreko zazpi-garren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. 16. artikuluari f) eta g) letrak gehituko zaizkio. Hona:

f) Garapenaren aldeko lankidetzako ekintzen kalitatea areagotze aldera, Administrazioak oinarri arautzaileetan zehaztu beharko ditu emandako dirulaguntzaren balorazioa, ebazpena, azken txostena eta ordainketa egiteko epeak, dauden tresnekin bat.

g) Emandako dirulaguntza kontabilitateko auditoretza bide justifikatzen baldin bada, azaroaren 9ko 1/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat, oinarri arautzaileetan zehaztuko dira auditoretzako erakundeek bete beharreko ezaugarriak eta baldintzak.

Zioak: Aldaketa honen xedea da GKE-en eta administrazioaren arteko konpromisoak, epeei buruzkoak, arautzea.

Bestalde, g) letrari dagokionez, kontabilitateko auditoretzek bide ematen dute prozesua azkartzeko; ohikoa da GKE-ek, hala tokikoek nola eskatzaileek, gastuaren betetzeari buruzko auditoretzak egiteko agintzea.

11. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarra –zortzi– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen zen testua:

Zortzi. Honela idatzita agertuko da 19. artikulua:

“19. artikulua. Lankidetzaren eragileak. Foru lege honen ondorioetarako, lankidetzaren eragileak ondoko hauek izanen dira: - Nafarroako Foru

Komunitateko Administrazioa. - Nafarroako toki administrazioak. - Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, hau da, legez eratuta dauden eta irabazi asmorik ez duten entitate pribatuak, baldin eta beren helburuen artean edo berariazko xede gisa –beren estatutuen edo dokumentu baliokidearen arabera– badute garapenerako nazioarteko lankidetzaren jarduketa esparruekin –foru lege honen seigarren artikuluan aipatuekin– lotutako jarduerak gauzatzea. Erakunde horiek Nafarroako Foru Komunitateak garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan dituen solaskide iraunkorrak dira; solaskidetasun hori foru lege honen 11. artikuluan xedatutako arloan da eragingarria. - Entitate eta pertsona juridikoak, beren berariazko helburua garapenerako lankidetzara bada, nahiz eta xedeetan irabazi asmoa izan; dena den, irabazi asmoa ez dute aplikatzen ahaliko garapenerako lankidetzaren jardueretan, foru lege honen 3. artikuluko i) atalean ezarritako doakotasunaren printzipioari jarraikiz. - Garapen bideko zein herrialderekin ezarri den lankidetzara, herrialde horietako tokiko bazkideak edo kontraparteak”».

Hauxe da proposatzen dugun testua:

Zortzi. Honela idatzita agertuko da 19. artikulua:

“19. artikulua. Lankidetzaren eragileak.

Foru lege honen ondorioetarako, lankidetzaren eragileak ondoko hauek izanen dira:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

- Nafarroako toki administrazioak.

- Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, hau da, legez eratuta dauden eta irabazi asmorik ez duten entitate pribatuak, baldin eta bere helburuen artean edo berariazko xede gisa –beraien estatutuen edo dokumentu baliokidearen arabera– badute garapenerako nazioarteko lankidetzaren jarduketa esparruekin –foru lege honen seigarren artikuluan aipatuekin– lotutako jarduerak gauzatzea. Erakunde horiek Nafarroako Foru Komunitateak garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan dituen solaskide iraunkorrak dira; solaskidetasun hori foru lege honen 11. artikuluan xedatutako arloan da eragingarria.

- Irabazi asmoa izan dezaketen entitate eta pertsona juridikoak, baldin eta haien helburu berariazkoa bada lankidetzarako garapena. Haien irabazizko jarduera argiro berezia izan behar dute, eta bereziki begiratuko da lankidetzara-ekintzan ez dagoela irabazi zuzenik, ez eta zeharkakorik edo induziturik ere.

- Garapen bideko zein herrialderekin ezarri den lankidetzara, herrialde horietako tokiko bazkideak edo kontraparteak”».

Zioak: Asmoa da argitasun handiagoa ekartzea erdietsi nahi den azken helburuari; alegia, pertsonen eta entitateen arteko lankidetzara zabalena erraztea, baina begiratuz lankidetzara hori ez dela beste xede batzuetarako aitzakia bihurtzen.

12. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko zortzigarren idatz-zatia, 5/2001 Foru Legeko 19. artikulua aldatzen duena, aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“19. artikulua. Lankidetzaren eragileak.

Foru lege honen ondorioetarako, lankidetzaren eragileak ondoko hauek izanen dira:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

- Nafarroako toki administrazioak.

- Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, hau da, legez eratuta dauden eta irabazi asmorik ez duten entitate pribatuak, baldin eta bere helburuen artean edo berariazko xede gisa –beraien estatutuen edo dokumentu baliokidearen arabera– badute garapenerako nazioarteko lankidetzaren jarduketa esparruekin –foru lege honen seigarren artikuluan aipatuekin– lotutako jarduerak gauzatzea. Erakunde horiek Nafarroako Foru Komunitateak garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan dituen solaskide iraunkorrak eta lehentasunezkoak dira; solaskidetasun hori foru lege honen 11. artikuluan xedatutako arloan da eragingarria.

- Irabazi asmoa izanagatik garapenerako lankidetzara xede duten entitate eta pertsona juridikoak. Haien irabazizko jarduera argiro berezia izan behar dute, eta begiratuko da lankidetzara-ekintzan ez dagoela irabazi ez zuzenik ez zeharkakorik, foru lege honetako 3. artikuluko i) letran ezarritako doakotasun printzipioarekin bat.

- Garapen bideko zein herrialderekin ezarri den lankidetzara, herrialde horietako tokiko bazkideak edo kontraparteak”».

Zioak: Asmoa da lankidetzaren arloko eragileen definizioa zehatzagoa egitea.

13. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeko 19. artikulua aldatzen duen artikulua bakarreko zortzigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da “Entitate eta pertsona juridikoak (...)” hasten den lerroakada:

“Irabazi asmoa izanagatik garapenerako lankidetzara xede duten entitate eta pertsona juridikoak. Haien irabazizko jarduera argiro bereizita izan behar dute, eta begiratuko da lankidetzara-ekintzan ez dagoela irabazi ez zuzenik ez zeharkakorik, foru lege honetan ezarritako doakotasun printzipioarekin bat.

Zioak: Lankidetzari buruzko Plan Zuzendarian ezarritakoarekin koherenteagoa eta argiagoa izan dadin.

14. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarra –hamar– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen zen testua:

«Hamar. Honela idatzita agertuko da 22. artikulua:

“22. artikulua. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen eta haiantzako ekarpenen zerga araubidea.

1. Erregistroan inskribatzea, 21. artikuluan aipatu bezala, beharrezkoa izanen da garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek aukera izan dezaten artikulua honetan aipatzen diren pizgarri fiskalak lortzeko.

2. Fundazioen tributua araubidea, uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legean arautzen dena, aplikatuko zaie, sozietateen gaineko zergari, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta toki tributuei dagokienez, foru lege honen 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribaturik dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei, baldin eta foru lege horretan eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte eta bigarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoa kontuan hartzen bada.

3. Foru lege honen 6. artikulua ezartzen dituen ekintza arloetako jarduerak gizarte laguntzat hartzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.1.17 artikuluan ezartzen den salbuespena izateari begira.

4. Pertsona fisiko eta juridikoek 21. artikuluan aipatutako erregistroan inskribatuta dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei egiten dizkieten ekarpenek eskubidea emanen dute 10/1996 Foru Legearen II. tituluko I. eta II. kapitulu-etan aipatzen diren pizgarriak izateko, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoa kontuan hartuta.

5. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribatutako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei aplikatu beharreko zerga araubidea, 10/1996 Foru Legean eskatutako baldintzak betetzen ez diren an, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko XII. kapitulu-ean ezarritakoa izanen da”».

Hau da proposatzen dugun testua:

«Hamar. Honela idatzita agertuko da 22. artikulua:

“22. artikulua. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen eta haiantzako ekarpenen zerga araubidea.

1. Fundazioen tributua araubidea, uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legean arautzen dena, aplikatuko zaie, Sozietateen gaineko Zergari, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari eta Toki Tributuei dagokienez, foru lege honen 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribaturik dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei.

2. Foru lege honen 6. artikulua ezartzen dituen ekintza arloetako jarduerak gizarte laguntzat hartzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.1.17 artikuluan ezartzen den salbuespena izateari begira.

3. Pertsona fisiko eta juridikoek 21. artikuluan aipatutako erregistroan inskribatuta dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei egiten dizkieten ekarpenek eskubidea emanen dute 10/1996 Foru Legearen II. tituluko I. eta II. kapitulu-etan aipatzen diren pizgarriak izateko, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoa kontuan hartuta.

4. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribatutako

garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei aplikatu beharreko zerga araubidea, 10/1996 Foru Legean eskatutako baldintzak betetzen ez direnean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko XII. kapituluan ezarritakoa izanen da»».

Zioak: Garapenerako Lankidetzari buruzko Foru Lege indarduneko testua bere horretan utzi nahi dugu, eta foru lege proiektuko 1. idatz-zatia ezabatu.

15. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko hamargarren idatz-zatia, 5/2001 Foru Legeko 22. artikulua aldatzen duena, aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“22. artikulua. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen eta haientzako ekarpenen zerga araubidea.

1. Erregistroan inskribatzea, 21. artikuluan aipatu bezala, beharrezkoa izanen da garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek aukera izan dezaten artikulu honetan aipatzen diren pizgarri fiskalak lortzeko.

2. Fundazioen tributu araubidea, uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legean arautzen dena, aplikatuko zaie, sozietateen gaineko zergari eta toki tributuei dagokienez, foru lege honen 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribaturik dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei.

3. Foru lege honen 6. artikulua ezartzen dituen ekintza arloetako jarduerak gizarte laguntzat hartzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.1.17 artikuluan ezartzen den salbuespena izateari begira.

4. Pertsona fisiko eta juridikoen 21. artikuluan aipatutako erregistroan inskribatuta dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei –interes orokorreko fundazio eta erabilgarritasun publikoko elkarte direnei– egiten dizkieten ekarpenek eskubidea emanen dute 10/1996 Foru Legearen II. tituluko I. eta II. kapituluetan aipatzen diren pizgarriak izateko. Erabilgarritasun publikoaren izaera lortu ez duten irabazi asmorik gabeko elkarten kasuan, ekarpen horietarako urteko 2.000 euroko gehieneko muga ezarriko da. Zenbateko hori urtero gaurkotuko da, KPIaren igoera oinarri.

5. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribatutako

garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei aplikatu beharreko zerga araubidea, 10/1996 Foru Legean eskatutako baldintzak betetzen ez direnean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko XII. kapituluan ezarritakoa izanen da»».

Zioak: GKE-en Koordinakundeak berak adieazi duen lege, zuzenketa honen asmoa da baliorik gabe uztea lehengo 1. idatz-zatiaren, oraingo 2.aren, aldaketa; izan ere, proposatzen den aldaketarekin, tributu araubide berezia, sozietateen gaineko zergari eta tokiko tributuei dagokienez, soilik aplikatu dakieke lankidetzara dedikatzen diren erabilgarritasun publikoko elkartei eta interes orokorreko fundazioei, eta kanpoan gelditzen dira jardura horretara dedikatzen diren irabazi asmorik gabeko elkarteak, baina hori ez da berria, lehen-dabiziko bi horiek aitortua baitute onura hori 10/1996 Legeari esker. Baldintza horren ondorioz, kanpoan gelditzen dira Nafarroako lankidetzara erakunde gehienak; izan ere, irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, baina ez dute erabilgarritasun publikoaren izaera lortu. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeentzat zaila da, burokrazia dela-eta, izaera hori lortzea, izapide hori Estatuko Gobernuan egin behar delako, eskumen hori ez baitago eskualdatuta. Emaileen zerga tratamenduari buruzko 4. idatz-zatia aldatzea proposatzen dugu orobat.

16. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Garapeneraren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeko 24. artikulua aldatzen duen artikulu bakarreko hamai-kagarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Ondoko testuak ordeztuko du 24. artikulua:

“24. artikulua. Administrazio publikoetako langileak.

1. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileek zilegi izanen dute garapenerako lankidetzara ekintzetan parte hartzea, bai administrazio horien beren programetan edo proiektuetan bai garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen, nazioarteko erakundeen edo beste administrazio publiko batzuen programa edo proiektuetan.

2. Langile horiek beren administrazio publikoaren programa edo proiektuetan parte hartzen dutenean, aldi baterako zerbitzu eginkizuna emanen zaie, eta jarduneko zerbitzuan jarraituko dute

ondorio guztietarako, non eta horrek ez dakarren beren lanpostuan ordezkatu beharra.

Kasuan kasuko administrazioak garapenerako nazioarteko lankidetzari begira jartzen dituen kontu-sailen kargura ordainduko dira langile horien parte-hartzeak sortzen dituen joan-etorri, mantenu eta material kostuak.

Administrazio publiko bakoitzak komeni diren aseguru osagarriez hornituko ditu langileak, kasuan kasuko programen edo proiektuen aurrekontuaren kargura.

3. Langile horiek boluntario edo borondatezko lankide gisa parte hartzen badute Nafarroako administrazio publikoen funts publikoekin finantzatutako GGKE-en proiektuetan, nazioarteko erakundeen proiektuetan edo beste administrazio publiko batzuen proiektuetan, eta parte-hartze horrek urtean hilabete baino gehiago irauten badu, lanpostuan ordezkatu beharra izan edo ez, zerbitzu berezietara pasatuko dira, aplikatzekoa den araudian administrazio egoera horretarako ezarritako ondorioekin; eta parte-hartze hori boluntarioekin egiten bada, urtean hilabete edo gutxiago irauten badu, aldi baterako zerbitzu eginkizuna emanen zaie langileei, antolamendu arloko beharrezanek horretarako bide ematen badute, eta ezezkoa ematen bada, berriz, behar bezala arrazoitu beharko da.”

Zioak: Lankidetzaren ikuspuntutik, langile berekien parte-hartzea sustatzea lankidetzaren arloko gaietan; izan ere, GGKE-ek nahiz haien tokian tokiko bazkideek, eta are garapen bideko herrialdeetako administrazio publikoek ere, administrazioaren adituak eskatzen dituzte xede jakin batzuetarako.

17. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko hamaikagarren idatz-zatia, 5/2001 Foru Legeko 3. artikulua aldatzen duena, aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“24. artikulua. Administrazio publikoetako langileak.”

3. Langile horiek boluntario edo borondatezko lankide gisa parte hartzen badute Nafarroako administrazio publikoen funts publikoekin finantzatutako GGKE-en proiektuetan, nazioarteko erakundeen proiektuetan edo beste administrazio publiko batzuen proiektuetan, eta parte-hartze horrek urtean hilabete baino gehiago irauten badu, lanpostuan ordezkatu beharra izan edo ez, zerbitzu berezietara pasatuko dira, aplikatzekoa den araudian administrazio egoera horretarako ezarritako ondo-

orioekin; eta parte-hartze hori boluntarioekin egiten bada, urtean hilabete edo gutxiago irauten badu, aldi baterako zerbitzu eginkizuna emanen zaie langileei, antolamendu arloko beharrezanek horretarako bide ematen badute, eta ezezkoa ematen bada, berriz, behar bezala arrazoitu beharko da.”

Zioak: Testua hobetzea.

18. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Munta handikoa baita, lehena izatea proposatzen dugu, eta gainontzekoak honen ondotik jartzea.

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak arian-arian igoko ditu nazioarteko elkartasunera eta garapenerako lankidetzara bideratzen dituen ekarpenak, halako moduz non 2015erako aurrekontu orokorretan esleitzen den gastuen aurrekontu osoaren % 0,7 egiten baitu, eta hori ez da eragozpen izanen gainontzeko administrazio publikoekin koordinatuta nazio-produktu gordinaren % 0,7 betetzeko aurrerabidea egiteko.”

Zioak: Nazio-produktu gordinaren % 0,7ren errebindikazioa administrazioen helburua izan behar da. 2015a da Milurteko helburuak lortzeko ezarritako data. Horregatik da garrantzitsua lege proiektuan jasotzea.

19. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bigarrena aldatzeko zuzenketa:

Hau da proposatzen zen testua:

«Azken xedapenetan bigarrena. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzea.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldien ondorioetarako, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiaren 3. zenbakia honela idatzita agertuko da:

“3°. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Gobernuz kanpoko Erakundeen Erregistroan inskribatuak, fundazioaren edo elkartearen forma juridikoa badute eta foru lege honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen badituzte.”

Hauxe da proposatzen dugun testua:

«Azken xedapenetan bigarrena. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzea.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldien ondorioetarako, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiaren 3. zenbakia honela idatzita agertuko da:

“3°. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Gobernuz kanpoko Erakundeen Erregistroan inskribatuta dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak eta nahiz eta inskribatuta egon ez erregistroan inskribatzeko eskaera formala egin duten eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari gisa bereko erregistro publiko batean jasota dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, baldin eta fundazioaren edo elkartearen forma juridikoa badute eta foru lege honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen badituzte.

Zioak: Helburua da erraztea eta sustatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste erregistro batzuetan inskribatu ahal izatea; izan ere, 5/2001 eta 10/1996 legeen arabera, emaileen zerga-tratamendua erabilgarritasun publikoko elkarrekin edo tributu araubide bereziko interes orokorreko fundazioei eginiko dohaintzei aplikatzen zaie.

Baldintza horren ondorioz, kanpoan gelditzen dira Nafarroako lankidetzaren erakunde gehienak; izan ere, irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, baina ez dute erabilgarritasun publikoaren izaera lortu.

Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeentzat zaila da, burokrazia dela-eta, izaera hori lortzea, izapide hori Espainiako Gobernuan egin behar delako, eskumen hori ez baitago eskualdatuta.

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Xedapen gehigarri berria.

“Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean garatuko da Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren osaera eta jardunbidea arautuko duen erregelamendua.”

21. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Azken xedapenetan laugarrena.

“Foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean garatuko da Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren osaera eta jardunbidea arautuko duen erregelamendua.”

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean garatuko da Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren osaera eta jardunbidea arautuko duen erregelamendua.”

Zioak: Kontseilua eratzeko eta foru lege honek aginduta bete beharreko eginkizunei ekiten hasteko arrazoizko epea da hori.

23. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa. Ondoko bi lerrokada hauek gehituko dira zioen azalpenaren hasieran, eta ondotik etorriko da Nafarroako Lankidetzarako I. Plan Zuzendaria.

“Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten alderdiek Pobreziaren aurkako Ituna sinatu dute Pobreziarik ez Nafarroan Plataformarekin; itunaren bidez zenbait konpromiso hartu dira, muntako zenbait hausnarketa egin ondotik, eta horiek dira bidea, kudeaketa arloko neurri zehatzekin batera, garapenerako laguntza ofizialak abiatzeko.

Parlamentu honetan 2007an hartutako konpromisoa ezin da ezerezean gelditu. Ituna gauzatu

eta foru lege honetan jasotze aldera gehitu da “B. Kudeaketa arloko neurri zehatzak, B.1. Garapenerako laguntza ofiziala” atala, a) letratik q) letrara doana.

Zioak: Nafarroako Parlamentuan Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko Legearen aldaketaren kariatara hartutako akordioa gauzatu beharra dago.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2009ko irailaren 25eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua kentzeko zuzenketa.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, ustelkeria desagerrarazte aldera Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko jabeldura, ustelkeria desagerrarazte aldera Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Maiorga Ramirezek, Nafarroa Bai parlamentutaldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena

Ustelkeria, funts publikoen kudeaketako irregulartasunak, adiskidekeria, funtzionario-eroskeria, prebarikazioa eta abar dira sistema demokratikoa galbideratu eta herritar askok sistema politikoan eta politikaren diziplina noblean duten konfiantza galaraztea dakarten gaitzak.

Historian zehar, munduko zibilizazio eta toki desberdinetan, ustelkeria kasuak gertatu izan dira politikoen eta erakundeen jardunean, eta, egiazta daitekeen moduan, gertakari horiek guztiek sistema politikoan ahultzea eragin dute eta, askotan, sistema horien gainbeheraren arrazoia izan dira.

Tamalez, Nafarroan ere izan dugu halako gertakaririk; are gehiago, esan daiteke gure historiaren azken garaiko ezaugarria izan dela foru erkidegoko arduradun gorenaren eta erakundearen ustelkeria; halako moduan non erakundeetako gorenako arduradunetatik hiru inputatuta egon diren eta bik zigorra jaso duten ustelkeria politikorekin zerikusia zuten kontuak tarteko. Izan ere, herritar guztien oroimenean dago oraindik Nafarroako Gobernuaren lehendakari baten dimisioaren irudia, duela 15 urte, Nafarroan izan den askotariko gobernu bakarrean beren ilusioa jarri zuten dozenaka mila herritarren itxaropena zapuztuz.

Gaur egun, Espainiako bi alderdi handienekin loturiko balizko ustelkeria kasuak egunkariaren orriak betetzen dituzte egunero. Nafarroan, Cintruénigoko Udalaren kudeaketan izandako balizko irregulartasunen kasuak kezka eragin du Nafarroako gizartean, ez baita ulertzen ikerketa eredugarri bat egiteko neurri politikoak ez hartzea, alderdiek ustelkeria ezabatzeko duten konpromisoaren adierazgarri, nahiz eta alderdi horietako kideak izan kasu horretan nahastuta daudenak.

Hori dela eta, XXI. mendeko sistema demokratiko batek, demokrazian sakondu nahi badu herritar guztien inplikazioaren eta parte-hartzearen bidez, zorrotza eta eraginkorra izan behar du egiztatzen diren ustelkeria kasu guztiak ikertzeari, deuseztatzeari eta zigor eredugarriak ezartzeari dagokionez.

Hala, parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, ezagutze aldera Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen ustelkeria kasuak errotik deuseztatzeako politika orokorrari dagokionez.

Iruñean, 2010eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Altsasuko “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoaren arazo ekonomikoak konpon ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2010eko otsailaren 3an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Altsasuko “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoaren arazo ekonomikoak konpon ditzan.” Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Altsasuko “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoaren arazo ekonomikoak konpon ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalik eta lasterren konpon ditzan Altsasuko “Josefina Arregui” zentro psikogeriatrikoaren arazoak eta ziurta ditzan haren bideragarritasun ekonomikoa eta ohiko funtzionamendua, eta horretarako itundu ditzan gaur egun bertan dauden 21 postuak eta adostu dezan zentroak berak prestatuko duen bideragarritasun plana, zentroaren bideragarritasuna eta jarduna ziurtatze aldera epe ertain eta luzerako.”

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Kultur Bonoaren programa.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko otsailaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Kultur Bonoaren programa.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan Kultur Bonoaren programa

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010an abian jar dezan “Kultur

Bonoaren” programa, ondoren ezarritako prozedura eta printzipioen arabera.

2. Programaren oinarritzko helburua: Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren eta gazte txartela duten 18 eta 26 urte bitarteko gazteei erraztea foru erkidegoko kultur ondasunak eta eskaintzen diren zerbitzuak eskuratzea, hala eskatzen badute.

3. Hauek izanen dira neurriaren onuradunak, aldez aurretik Kultura eta Turismo Departamentuari jakinarazi ondoren:

– Nafarroako kultur etxeetan programatzen diren barne-ikuskizun artistiko guztiak, ordaintze-koak badira.

– Baluarteko programazioko ikuskizun guztiak.

– Iruñeko Gayarre Antzokiko, Barañaingo Auditorioko, Tuterako Gaztambide Antzokiko eta Nafarroako Antzerki Eskolako berariazko programazioko ikuskizun guztiak.

– Nafarroako liburu-denda guztiak, bertan liburuen salmentak negozioaren % 90 egiten badu. Bazter geratuko dira saltoki orokorretako eta saltokik handietako liburuen atalak.

– Nafarroako musika areto egonkorren barnean programaturiko ikuskizunak, non artista profesionalek musika emanaldia eskainiko baitute zuzenean, betiere sarreraren prezioan ez bada sartzen edari bat hartzeko eskubidea.

4. Programaren ezaugarriak: “Kultur Bonoa” taloitegi edo txartel elektronikoko bat izanen da, pertsonala eta besterenezina, eta doan eskuratu ahal da. Taloitegi edo txartel bakoitzak 25 euroko kostua izanen du gazte onuradun bakoitzarentzat, eta ahalbidetuko dio 50 euroko produktuak edo zerbitzuak eskuratzea. Beraz, Foru Komunitateko Administrazioak falta diren 25 euroak jarriko ditu, kultur kontsumoa sustatze aldera.

Kultur Bonoak balioa izanen du ezartzen denean 2010eko abenduaren 31ra arte, eta indarrean egonen da 2010eko Nafarroako aurrekontu oroko-

rretan horretarako bideratzen den kontusailean dirua dagoen bitartean.

5. Bateragarritasuna: Kultur Bonoak bateragarria izan beharko du gazte txartelean eta bezeroaren leialtasuna lortzeko bestelako baliabideetan jasotako ohiko deskontuekin. Saltokietan NANA eskatu ahal duen Kultur Bonodunari, bai eta salmenta ukatu ere, baldin eta tarteko pertsona batek egiten badu. Deialditik kanpo geratuko da honako salmenta: CDak, DVDak, programa informatikoak, bideojokoak eta antzekoak.

6. Programa betetzea: “Kultur Bonoa” Kultura eta Turismo Departamentuak kudeatuko du, zehazten den prozedurari jarraikiz.

7. “Kultur Bonoaren” programak indarrean egon beharko du 2010eko apirilaren 1ean, erregelamendu bidez zehaztuko diren xedapenei jarraikiz.

8. “Kultur Bonoa” martxan jartzeak ez luke 2010eko aurrekontuetan gastu murrizketarik ekarriko departamentuaren beste programetan; hala nola “Arte eta Kultura”, “Udaberriko Bira”, “Udazkeneko Bira” edo “Herriz herri” programetan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ondare arkeologikoaren eta indusketen arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak aurkez ditzan.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko otsailaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ondare arkeologikoaren eta indusketen arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak aurkez ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ondare arkeologikoaren eta indusketen arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak aurkez ditzan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Legebiltzarrean aurkez ditzan indusketen eta ondare arkeologikoaren arloan 2010ean egin nahi dituen jarduketak, bereziki ondokoak:

– Aurreikusitako administrazio-egitura eta egitura hori hobetze aldera har litezkeen neurriak.

– Aztarnategi bereziki garrantzitsuen indusketa plana eta plan hori gauzatu duten giza-ekipoak.

– Intereseko aztarnategietan esku hartzeko plana eta ekipo arduradunak.

– Larrialdiko jarduketak, hala aurreikusiak nola aurreikusteko modukoak.

– Aztarnategiak museo bihurtzeko eta horien zabalkundea egiteko jarduketak.

– Argitalpenak eta bestelako materialak, baldin eta halakorik badago.

– Santa Crizi buruzko Plan Zuzendaria abian jartzeko eta garatzeko berariaz aurreikusitako jarduketak.

2. Jarduketa plan hori martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da Parlamentuan, batzordeak hil horretan eztabaidatu ahal izan dezan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun etxetako administrazio-olor guztiei buruzko azterlan bat egin dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun etxetako administrazio-olor guztiei buruzko azterlan bat egin dezan".

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2010eko otsailaren 3an egindako bileran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009eko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso dezan 7/2009 Foru Legean xedatutakoa.

EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso dezan 7/2009 Foru Legean xedatutakoa.

Legebiltzarreko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak 2010eko otsailaren 4an egindako bileran,

erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2009ko aurrekontuetako kontusailei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako III. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2009ko aurrekontuetako kontusailei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 20ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako IV. Enplegu Planaren luzapenean sartu diren 2009ko aurrekontuetako kontusailei buruz (PES-311/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Plana da Nafarroako Gobernuak darabilen enplegu arloko politika aktiboaren plangintza egiteko tresna. Plangintza hori, berriz, Foru Gobernuak CENekin, UGTekin eta CCOOrekin lan arloan darabilen itu sozialean sartzen da, horiek baitira Nafarroan ordezkari gehien dutenak enpresa erakundeen eta sindikatuen artean.

Enplegu Plana gobernu-ekintzen elementu globalizatzailea den aldetik, Enplegu Planeko aurrekontuek ekonomia eta enplegu jarduera berriak sortzeko ekimenak jasotzen dituzte.

Honekin batera doan informazioa Enplegu Planari buruz lehenago bidalitakoaren osagarria da eta, bereziki, planaren aurrekontuenarena.

Informazioa PES-311 galderen erantzuna da.

Iruñean, 2010eko abenduaren 15ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

2009ko ENPLEGU PLANA

Kontusailak	2009
03200 040001 2279 921300 Ikastaroak eta kongresuak antolatzea	10.000 €
03100 040002 2269 921300 Prestakuntza programetan batera parte-hartzea	500 €
03100 040002 2276 921300 Etengabeko prestakuntza ikastaroak (Estatuko NAPI)	1 €
03100 040002 2279 921300 Ikastaroak antolatzea	320.000 €
03300 040003 2276 921300 Etengabeko prestakuntza ikastaroak (Estatuko NAPI)	1 €
03300 040003 2279 921300 Ikastaroak antolatzea	600.000 €
03400 040004 2269 921300 Administrazio Publikoetako Euskarazko Prestakuntza Plana	25.000 €
03400 040004 2269 921302 Prestakuntza programetan batera parte-hartzea	100 €
03400 040004 2276 921300 Etengabeko prestakuntza ikastaroak (Estatuko NAPI)	1 €
03400 040004 2279 921300 Ikastaroak antolatzea	128.000 €
53000 514000 2269 313902 Nafarroako Lan Osasuneko Plana	315.000 €
53000 514000 2269 313903 Lehentasunezko laneko arriskuei buruzko informazio plana	/
53000 514000 4819 313900 Laneko osasunaren arloko jarduketak eta ikerkuntza	84.077 €
53000 514000 4819 313902 Eraikuntzako segurtasun eta osasun proiektuak	190.390 €
53000 514000 4819 313903 Lehentasunezko laneko arriskuei buruzko proiektuak	224.772 €
94000 930001 2269 232200 Aukera-berdintasunerako planaren garapena eta jarduketak	507.820
94000 930001 4609 232200 Toki entitateentzako transferentziak, berdintasun-politikei bultzada emateko	714.000
96100 960002 4819 232100 Gazte elkarten programetarako dirulaguntzak	617.875 €
96100 960002 2269 232103 Gazteriaren arloko jarduketak	132.000 €
96100 960002 2269 232102 Zeharkako ekimenak	131.000 €
A1120 A10001 7709 432300 Ekimen pribatuarentzako transferentziak, turismo produktueterako	779.800 €
A1120 A10001 7709 432302 Ekimen pribatuarentzako transferentziak, kalitate planetarako	126.000 €
A1120 A10001 7709 432304 Ekimen pribatuarentzako transferentziak, FEDER turismo produktueterako	560.000 €
A1120 A10001 7709 432305 Ekimen pribatuarentzako transferentziak, FEDER kalitate planetarako	/
81120 830001 4400 422202 CEINSArentzako transferentziak	750.000 €
81120 830001 7701 422200 Korrituen hobariak (eskualde lagunduei buruzko araudi berria)	30.000 €
81120 830001 7701 422203 Inbertsio eta enpleguko funts galdurako dirulaguntzak.	42.043.590 €
81120 830001 7701 422202 Inbertsio eta enpleguko funts galdurako dirulaguntzak.	6.182.978 €
81150 830002 7701 422300 Abalaturiko kredituen hobariak eta bideragarritasun-azterlanen dirulaguntzak	50.000 €
81120 830001 4709 241300 Enplegu sorreraren gastu fiskalak	20.289.797 €
81120 830001 4701 422200 Transferentzia arruntak, enpresa sortu berriei laguntzeko	1.000.000 €
81210 840001 7709 467303 I+G+b proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun-azterlanetarako dirulaguntzak enpresentzat	5.500.414 €
81220 840002 4400 467902 CEINSArentzako transferentziak, enpresetan IKTak sartzeko	500.000 €
81220 840002 7709 467900 "Enpresa txiki eta ertainen eta mikroenpresa txiki eta ertainen digitalizazioa" proiektuetarako dirulaguntzak	1.310.000 €
81210 840001 4709 467300 Lehiakortasuna (kalitatea/diseinua) hobetzeko dirulaguntzak	484.000 €
81210 840001 4809 467302 Giza taldearen prestakuntza eta FSE teknikariak birziklatzea	1.000.000 €
81210 840001 7709 467300 I+G+b proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun-azterlanetarako dirulaguntzak enpresentzat.	1.000.000 €
81210 840001 7709 467302 I+G+b proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun-azterlanetarako dirulaguntzak enpresentzat.	2.500.000 €
81400 850001 2269 431300 Informazio, prestakuntza eta sustapen arloko ekintza zuzenak	285.000 €
81400 850001 2269 431302 Beste gastu batzuk	5.000 €
850001 81400 4709 431300 Kanpoko sustapenerako ekintzak	2.232.000 €
81400 850001 4819 431302 Kanpo merkataritzako prestakuntza	143.000 €
81400 850001 4819 431300 Kanpoko sustapenerako ekintzak	350.000 €
81400 850002 2269 431400 Informazio eta sustapen arloko ekintza zuzenak	200.000 €
81400 850002 4709 431400 Merkataritzako egiturak modernizatzeako laguntza	120.000 €
81400 850002 4819 431400 Merkataritzako egiturak modernizatzeako laguntza	633.000 €
81400 850002 4819 431402 Kanpo merkataritzako prestakuntza	80.000 €
81400 850002 7701 431400 Enpresentzako transferentziak, merkataritza ekipamenduetarako	2.500.000 €
81400 850002 7819 431400 Entitateentzako transferentziak, merkataritza ekipamenduetarako	100.000 €
81400 850002 7609 431400 Toki entitateentzako transferentziak, merkataritza ekipamenduetarako	215.000 €
51310 512001 2266 311200 Osasun arloko etengabeko prestakuntza.	140.000 €
51310 512001 4819 311200 Etengabeko prestakuntzarako hitzarmenak	70.000 €
Enplegua sortzeagatiko kenkariak	(*)

2009ko ENPLEGU PLANA

Kontusailak	2009
13100 123003 2269 145102 Erregioz gaindiko proiektuetan parte-hartzea	23.766 €
13100 123003 4709 145100 Akitania eta Nafarroaren arteko mugaz gaindiko lankidetzak proiektua	240.000 €
13110 123003 1310 145100 Lan kontratadunen ordainsariak, ixte eta programazio epe berrirako	83.000 €
13110 123003 1600 145100 Lan kontratadunen gizarte segurantzak, ixte eta programazio epe berrirako	28.983 €
13110 123003 2276 145103 Objetivo 3 (FSE): laguntza teknikoko gastuak	20.500 €
13110 123003 2276 145104 Objetivo Competitividad (FSE): laguntza teknikoko gastuak	20.500 €
13110 123003 2276 145105 Objetivo 2 (FEDER): laguntza teknikoko gastuak	20.500 €
123003 13110 7810 134100 III. Interreg Ekimena	/

(*) Errentako kontabilitate ekitaldia itxteari lotutako datuak

Galdera, Ultzamako, Anueko, Atezko eta Odietako ur-hornidurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ultzamako, Anueko, Atezko eta Odietako ur-hornidurari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 20ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Ultzamako, Anueko, Atezko eta Odietako ur-hornidurari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak erantzuteko, esan beharra daukagu departamentu honetan ez dagoela jasota joan den udan ur-murrizketak izan zirenik galderan aipatutako herrietan. Hala eta guztiz ere, egokia da aipatzea Toki Administrazioako Departamentuak lankidetzak ekonomikoko plan bat baduela horrelako egoeretara-

ko, hain zuzen ere azaroaren 3ko 315/2005 Foru Aginduz (2005eko abenduaren 5eko 145. NAO) araututakoa.

Bestalde, departamentuak jada ur hornidura hobetzeko zenbait obra eta fase jada burutuak dauzka Etxarri jaunak aipatzen duen eremuan, eta hobekuntza horiek bateragarriak dira udaldekiko lankidetzan exekuta daitekeen edozein konponbiderekin (Arraitz konponbidea, Atezko bailararen goi presioko hornidura eta abar), Nafarroako Ur Horniduraren Plan Zuzendariaren barruan. Halaber, departamentuak proiektu eta konponbide egokienak garatzen jarraitzen du, udal horiekin batera lan eginez, halako moduz non beren hornidura hobetzen eta segurtatzen jarraituko duten etorkizunean, foru erkidegoko gainerako herrietan egiten den bezala. Azterlan horiei dagokienez eta Etxarri jaunak planteatzen duen kasu zehatzean, departamentua Iruñerriko Mankomunitatearen zenbait proposamen eta iritzi ari da analizatzen eta aztertzen, hain zuzen ere zuk aipatu dituzunak eta beste batzuk –bertako baliabide berekiak aprobetxatzea, bai lur azpikoak (iturburuak), bai lur gainekoak–.

Iruñean, 2009ko abenduaren 16an

Toki Administrazioako kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, Euskal Y-aren Sakanako bide-trazadura baliatzeko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Euskal Y-aren Sakanako bide-trazadura baliatzeko aukerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 27ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitatearen eta euskal Y-aren arteko tren bidezko loturari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

• Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin eta Sustapen Ministerioarekin adostu du Nafarroako abiadura handiko korridorearen eta euskal Y-aren arteko lotura Ezkio-Itxason (Gipuzkoa) egi-

nen dela. Bestalde, 2004ko uztailaren 7an, Sustapen Ministerioak Iruñerriko trenbide sare berriaren proiektuari buruzko informazio-azterlana: trenbideak egiten duen itzulingurua kentzea eta geltoki intermodal berria izeneko proiektua onetsi zuen, eta 2004ko ekainaren 1eko Ebazpenaren bitartez Zuastirainoko trazadura definitzen duen proiektuari buruzko ingurumen eraginaren deklarazioa egin zuen.

• Zuasti eta Ezkio-Itxasoren arteko trazadura definitzeko, Sustapen Ministerioak kasuko informazio-azterlana kontratatu beharko du. Azterlan horren esparruan, zenbait aukera planteatuko dira, eta ikuspuntu funtzionaltik, ingurumenaren ikuspuntutik eta ikuspuntu ekonomikotik analizatuko dira. Informazio azterlan hori egin eta izapidetzen ez den bitartean, ezin da inolako aukerarik baztertu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartzelonarako bai Madrilera tren bat egunero gera dadin.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartzelonarako bai Madrilera tren bat egunero gera dadin.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 27ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera bat egin du. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Altsasuk 7.600 biztanle inguru dauzka, baina eragin-esparru handi samarra dauzka, inguruan dauzkan herriak kontuan izanda: Ziordia, Olazti, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uhartea-Arakil. Gaur egun, trenbide-loturak –zalantzarik hobetzeko modukoak– dauzka Madrilekin eta Bartzelonarekin.

Une honetan, Madrilera joateko lotura zuzen bat dago, Irundik datorren erregio-zerbitzuaren bitartez. Altsasutik 16:48an irten, tren-aldaketa Gasteizen egin eta Madrilera 23:42an iristen da; itzulera, berriz, erregio-zerbitzuaren bitartez egin daiteke: Madriletik 13:30ean irten eta Altsasura 19:29an iristen da. Eta lotura zuzena dago Bartzelonarekin: Irun-Bartzelona ibilbidea egiten duen Alvia 532 trena joaneko bidaian Altsasun geratzen da 09:30ean eta Iruñean, berriz, 10:00etan; itzulerarako, berriz, Albia 531 trena dago, Bartzelona-Irun ibilbidea egiten duena. Altsasun 21:04an geratzen da eta Iruñean, berriz, 20:32an.

Halaber, Altsasuk hiru tren dauzka Iruñera eta Gasteizera, bai eta beste destino batzuetara ere.

Egoera deskribatuta, kontuan eduki behar da Nafarroako Gobernuak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez duela arlo horre-

tan inolako eskumenik. Renfe operatzailea da trenak ezartzeari buruz eta haien maiztasun eta geldialdi buruz erabakiak hartzen dituena, bai eta gure erkidegoa gaur egun zeharkatzen duten bidaiarien tren-trafikoaren sistema osoari buruz erabakiak hartzen dituena ere (gainerako autonomia erkidegoetan gertatzen den bezala).

Herri Lan, Garraio de Komunikazio Departamentuak elkarrizketak izan ditu bi arloetako –Bartzelonako eta Madrilgo– arduradunekin. Halaber, aipatu bi arduradunei idazki bana igorri zitzaion. Idazki horretan, Nafarroako Parlamentukok Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak onetsitako mozioari jarraituz, eta biztanleriaren bidaia-tzeko premiei eta kasuko eragin-esparruari erreparatuta, eskatzen genuen gutxienez ere egunean joan eta etorriko tren bat egotea Bartzelonara bidean eta beste bat Madrilera bidean Altsasun geraldia eginen dutenak.

Bartzelonako arloko arduradunarentzat, printzipioz, jarduerako 12 hileko aldiei erreparatuta, zenbaki absolututan, Altsasuko jarduera munta txiki-koa da, eta, horrenbestez, momentuz ez du aldaketarik aurreikusten eskabidean adierazitakoaren bidetik, nahiz eta gaia aztertu eta analizatzeko asmoa adierazi duen.

Madrilgo arloko arduradunak, bere erantzunean, adierazten du 2008an Altsasun igo edo jaitsi ziren bidaiariak, Madrildik zetozenak nahiz Madrilera zihoazenak, guztira 331 egin zutela. Adierazitako idazkian esandakoaren arabera, eguneko bidaiari bat baino gutxiago.

Arduradunak nabarmentzen du, halaber, Madril-Iruña-Irun ibilbideko eta haren itzulerako trenak, joan den urtean zirkulazioan zebiltzanak, bidaia Iruñean amaitzen dutela edo bertatik abiatzen direla, halako moduan non eskatutako ibilbidea soilik Madril-Irun/Hendaia ibilbidea (Valladolidetik) egiten duten Alvia trenak egin ahalko luketen. Hala eta guztiz ere, Alvia tren horiek (egunean bi tren norabide bakoitzean) direla-eta erabil-tzaileek gehien baloratzen duten bereizgarrietako bat da jatorritik helmugara iristeko bidaian ematen den denbora laburra. Hori dela eta, haien geldialdien kopurua ahal den guztian mugatu nahi izaten da.

Amaitzeko arduradunak dio arrazoi horiek direla eta ez dutela momentuz aurreikusi tren horien geldialdien kopurua areagotu nahi, ez eta geldialdi horietakoren bat Altsasu izatea ere.

Departamentuak azaldutakoaren ildotik lan egiten jarraituko du, Altsasuk bi korridore horiek direla eta duen egoera hobetzeko, bereziki Madrili dagokionez. Izan ere, deskribatutakoa gorabehera, Renferi planteatuko zaio, halaber, Altsasu eta Iruña arteko distantzia ertaineko loturak hobetzea, hain zuzen ere Iruñetik Alviaren zerbitzuak erabili

ahal izateko, bai Madrilera eta Madrildik bai Bartzelonatik eta Bartzelonara.

Eskatutako erantzunaren informazio osagarri gisa, aztergai dugun arlorako interesgarria baita, gehitu nahi dugu Altsasuk lotura ona duela Madril-ekin autobus bidez, Madril-Irun kontzesioaren bitartez, zeinak Madrilera joateko 4 zerbitzu eta Altsasura itzultzeko 6 zerbitzu eskaintzen baititu.

Iruñean, 2009ko abenduaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado